



BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresa taberna bat da eta bere izena MINUTO 90' da.

Gure produktuen artean, azken urte hauetan modan jarri diren smash hanburgesak egiten ditugu, hau da: parrillan egindako hanburgesa, haragia plantxaren kontra gogor jartzen dena, kanpotik kurruskari eta barrutik zukutsu gera dadin.

Gure herrian, Andoainen, produktu hau eskaintzea erabaki dugu, ez baitago horrelako janaria eskaintzen duen tabernarik.

Eskainiko ditugun hanburgesak publiko guztientzako egokituko ditugu. Horretarako hanburgesa mota hauek salduko ditugu: beganoak, gluten gabekoak, laktosa gabekoak...

Horretaz aparte, gure enpresa beste enpresa batzuetatik bereizteko, beste 3 zerbitzu eskainiko ditugu. Bi pisutako lokala edukiko dugu eta hiru gunetan zatituko dugu, gune guztiak intsonorizatuak egongo dira hurrengo zerbitzuetarako.

Alde batetik, gure tabernan bazkaldu eta gero siesta egiteko aukera egongo da. Horretarako gune bat prestatu dugu. Zerbitzu hau disfrutatzeko, kontuan izan behar da, plus bat ordaindu behar dela. Gure tabernan bazkaldu duen edonork zerbitzu hori gozatzeko aukera izango du.

Beste aldetik, asteko bi egunetan, (ostirala eta larunbata) monologo baten ikuskizuna gozatzeko aukera izango da afaldu bitartean, zehazki lehenengo solairuan, jantokian eta horretarako eszenatoki bat dugu.

Azkenik, gure lokalaren beste gunean, egongela bat prestatu dugu karaokeaz disfrutatu ahal izateko. Zerbitzu hau, gure jatetxean kontsumitu duten pertsona guztiek gozatu ahal izango dute.

Enpresa guztiak bezala, konpetentzia izango dugu, ez herrian bertan beraz hori guretzat abantaila da, onuragarria. Baina, Donostia edo inguruko herritan dauden tabernak dira gure parekide. Konpetentzia handia dugu, Smash hanburgesak modan baitaude.

Besteengandik bereizten gaituena, ematen ditugun zerbitzuak dira, jendea erakartzeko eta gure tabernara etor daitezen erabiliko ditugunak.



Gaur egun, garraio publikoaren bitartez edo, kotxea hartuta, edozein lekutara joateko ez dago inolako arazorik, beraz, beste herritatik jendea etorriko litzateke.

Gure tabernara joatea ideia paregabea da, normalean bazkal ostean logurea sartzen zaigu eta etxera joateko gogoia edukitzen dugu, sofan etzan eta lo egiteko. Baina, gure tabernara etortzen bazara, hortaz tokian bertan gozatzeko aukera edukiko duzu, eta lo pixka bat egin ondoren, nahi duzuna egiteko prest egongo zara.

Garapen Iraunkorreko Helburuei dagokionez, 12. helburua landuko dugu.



12. helburuari dagokionez, gure enpresak elikagaiak alferrik galtzea murriztu nahi du. Horretarako, egun batean aprobetxatzen ez ditugun elikagaiak hurrengo egunetan berrerabiliko ditugu beste janari batzuk egiteko. Elikagaiez gain, erabiliko dugun materialarekin berdina egingo dugu.

Hau da, ahal den material gutxiena erabiliko dugu bai sukaldatzeko bai mahaiak, aulkiak, oheak... behar direnak erosiko ditugu eta horiei probetxu handia ateratzen saiatuko gara. Material bat puskatu edo hondatu egiten bazaigu, konpontzen saiatuko gara edo bigarren eskukoa erosten. Gure helburua, gauzei zukua ateratzea da.

Bestetik, gure produktu guztiak egiteko, tokiko elikagaiak erosiko ditugu. Ez dugu dirua gastatuko super merkatu handitan, herriko baserritarrei erosiko diegu, honela, herriko merkataritza sustatuko dugu.